



Kitto!

EIBARKO EMAITZAK
2015 - V - 24



UDALERAKO
ETA BATZAR
NAGUSIETARAKO
HAUTESKUNDEAK



Eibarko sozialistek badute zer ospatu, aurreko hauteskundeetan baino zinegotzi bat gehiago lortu dutelako.

EH-Bilduk eta EAJ-PNVk bosna lortu dituzte eta Irabazik bestea

Sozialistak nagusi 10 zinegotzirekin

MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATEAK GARAIPEN ARGIA LORTU DU UDAL HAUTESKUNDEETAN. Orain dela lau urte baino 600 boto gehiago jaso ditu PSE-EEK eta, horrekin batera, baita zinegotzi bat gehiago lortu ere. Zentsoan 663 botoemaile gutxiago izan direla jakinda, garrantzi gehiago hartzen du datu horrek. Portzentaietan, lehen zuten %35etik oraingoko %41ra pasatu dira sozialistak.

EH-Bilduk bigarren indarra izaten jarraituko du, oraingoa, 463 boto gal-

tzearekin batera, zinegotzi bat gutxiago izango badu ere. Bost izango ditu, beraz, ezker abertzaleak, boto guztien %24rekin. Eta kopuru bera EAJ-PNVk, azken honek lehen zituenekin jarraitzeko. Botoei dagokienez, jeltzaleek 172 irabazi dituzte 2011ko emaitzeekin konparatuta, eta gaur egun boto guztien %21ean geratu dira.

Irabazi alderdi berriak 904 boto eskuratu ditu, boto guztien %7, eta kopuru horrekin Udalean sartzea lortu dute. Ordezkaritzarik gabe geratuko da oraingoa PP, 8 botoengatik 21. zine-

gotzia eskuetatik ihes egin eta PSE-EEren esku geratu delako.

Batzar Nagusietarako hauteskondeei dagokienez, honakoak izan dira emaitzak: PSE-EE (4.361), EAJ-PNV (3.426), EH-Bildu (3.061), Podemos (1.211), PP (694) eta Irabazi (367). Diputazioarako, beraz, PSEk 1.235 boto gutxiago jaso ditu, EH-Bilduk 149 gutxiago eta Irabazik 367 bakarrik. Hori bai, Batzar Nagusietarako beste hautagai bat zegoen, Podemos, eta honek 1.211 boto jaso ditu. EAJ-k, aldiz, udalerako baino 597 boto gehiago lortu ditu.

BATZAR NAGUSIAK

Gipuzkoa

EAJ-PNV (18) Bildu (17)
PSE (9) Podemos (6) PP (1)

Bizkaia

EAJ-PNV (22) Bildu (11)
Podemos (7) PSE (7) PP (4)

Araba

EAJ-PNV (13) PP (12) Bildu (11)
Podemos (8) PSE (5) Irabazi (1)
C's (1)

Nafarroako Parlamentua

UPN (15) Geroa Bai (9) Bildu (8)
PSOE (7) Podemos (7) PP (2)
Izquierda-Ezkerra (2)



2011ko zinegotziak

PSE-EE	9
BILDU	6
EAJ-PNV	4
PP	2



10



5



5



1



Askok dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 Eibar / Tel: 943 70 00 82



José de Artetxe, 5
20730 Azpeitia / Tel: 943 02 59 55

www.innovadentalclinicas.com

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

BOTUA EMOTERAKUAN

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINA? 2.- Zelako EMAITZAK espero ditzuzue?



MIGUEL DE LOS TOYOS (PSE-EE)

Mahaixak osatu eta segiduan, 09.30xetan emon dau botua Miguel de los Toyos alkatiak, Urkiko ikastetxian. Ordu horretan ez eguan ixa jenderik ez kalia ezta botua emoteko kolegiuetan bez.



- 1.- Oso intensua eta gertutasun haundikua izan da, ondo hartu gaittue. Halanda be, bizi izandakuen artian hauxe izan da zikiñena, gu kaltetzeko gezurrak eta anonimuak tartian dirala.
- 2.- Gauzak ondo egin ditzugula eta jendiak horren arabera jokatu-ko dabela uste dot. Emaitzak edozelakuak izanda be onartuko ditzugu.



GORKA ERRASTI (EH-Bildu)

Coliseoko sarreran dagozen mahaixetako batian emon dau botua Gorka Errastik, 11.00etan. Ordu horretarako kalia jendia atzera eta aurrera ikusten hasi da eta asko antzokira sartu dira bozkatzera.



- 1.- Lau urtetako biharrarendako ginda modukua izan da. Beste batzuk baiño apalaguak gara eta bolondres morduaren laguntasanari esker izan da posible dana, eskerrak emon nahi detsaguz daneri.
- 2.- Emaitzak oso parekatuta dagoz, erronka haundixa dakagu aurretik eta jendia aldatetaren alde bozkatzera animatzia nahiko genduke.



EVA JUEZ (EAJ-PNV)

Alderdi jeltzaleko alkategaixak eguardixa pasauta, 12.30xetan emon dau botua San Andres eskolan. Ordurako jende mordia zebillen kalia eta orduantxe hasi gara mahaixetan lehen illarak ikusten.

- 1.- Oso lanpetuta ibilli gara. Oin dala urte eta erdi lantaldia barrizatzeko eraldaketa hasi genduan eta kanpaiñarekin prozesua itxi dogu. Bestela, batzuen aldetik gauza zatarrak entzun doguz.
- 2.- Emaitza ona, aurreko legegintzaldikua baiño hobia izango dala uste dogu. Egindako biharra emaitzetan islatuko dala pentsatzen dogu.



ITOITZ GARCIA-ANTON (Irabazi)

Arratsaldeko lehen orduan, 16.00etan egon gara Itoitz Garcia-Anton, Eibar Irabaziko alkategaixarekin San Andres eskolan. Ordu horretan lasaitasuna zan nagusi danian.

- 1.- Kanpaiña oso apala egin dogu, dirurik eta baliabiderik ez dakagu eta. Gutariko gehixenak biharretik urten eta gero egin dogu kanpaiña eta holan oso gatxa da emaitza onak eukitzia. Programia batez be internet bidez zabaldu dogu.
- 2.- Barririk garala kontuan izanda, ordezkari bat etaratziarekin pozik egongo giñake.



JAVIER NUÑEZ (PP)

Ipuruan, Helduen Irakaskuntza Zentruko mahaixetako batian bozkatu dau alderdi popularreko alkategaixak 13.30xak jota. Botua emoten jendetza batu da eta illara luziak egin dira.

- 1.- Kanpaiña zuzena izan dala pentsatzen dot, alderdi bakoitxak bere proposamenak modu egokixan aurkeztu dituala begittantzen jata, hori da gehixen azpimarratuko neukiana.
- 2.- Jendiak oiñ arte alderdi popularraren izandako konfidantzari eutsiko detsala espero dogu eta, beraz, oiñ arteko emaitza errepikatzeke esperantza daukagu.



Arruabarrenak lehen gola sartu zuen.



Aupa, Eibar!

Eibarrek 1. maila galdu zuen bezperan



Garitanok bere etapa amaitu du Eibarren.



APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

emansl@emansl.es

EMAN CONSULTING, S.L.

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:**
 - Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTSOAK:** - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIRUAK
- BALORAZIOAK
- SUBENTZIOAK
- BANKU KREDITUAK
- TRASPASOAK
- PERITAJEAK
- KREDITU OFIZIALAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901

HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK AUZORIK-AUZO


	PSE-EE	Bildu	EAJ-PNV	Irabazi	PP	Zuriak
Amaña	792 (%65)	175 (%14)	97 (%8)	70 (%6)	47 (%4)	16 (%1)
Ipurua	664 (%40)	470 (%28)	280 (%17)	126 (%8)	64 (%4)	35 (%2)
Coliseoa	508 (%34)	372 (%25)	416 (%28)	96 (%6)	68 (%5)	30 (%2)
Gerontologikoa	253 (%51)	112 (%23)	44 (%9)	35 (%7)	32 (%6)	12 (%2)
San Andres	720 (%33)	572 (%26)	604 (%28)	158 (%7)	68 (%3)	43 (%2)
Udaletxea	980 (%37)	667 (%25)	644 (%25)	142 (%5)	103 (%4)	59 (%2)
Urki	794 (%54)	311 (%21)	178 (%12)	109 (%7)	52 (%4)	18 (%1)
Urkizu	885 (%38)	531 (%23)	566 (%24)	168 (%7)	118 (%5)	46 (%2)
Guztira	5.596 (%41)	3.210 (%24)	2.829 (%21)	904 (%7)	552 (%4)	259 (%2)

ZENTSOA:
21.674

BOTO-EMAILEAK:
13.496

PARTE-HARTZEA:
%62,27

ABSTENTZIOA:
%37,73



D'Hondt legearen aplikazioa Udaleko 21 zinegotzien postuak betetzeko

Alderdikako zerrenden bidezko ordezkartza proportzionaleko hauteskundeetan hautetsiak banatzeko metodoa da, batezbesteko handiena darabilena. Boto guztiak zenbatu eta gero, zatitzaileak kalkulatu dira (zerrenda batek jasotako boto kopurua / banandu beharreko kargu kopurua). Bi balore horien artean dauden zatitzaileekin botoen zatiketak kalkulatu eta gero, karguen asignazioa egiten da zatiketen

emaitza handienetik txikienera joanda eta karguak agortzen direnean amaitzen da.

ZATIKATZAILEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
PSE-EE	(1) 5.596	(4) 2.798	(5) 1.865	(8) 1.399	(9) 1.119	(12) 933	(15) 799	(17) 700	(19) 622	(21) 560
EH-Bildu	(2) 3.210	(6) 1.605	(10) 1.070	(14) 803	(18) 642	535	459	401	357	321
EAJ-PNV	(3) 2.829	(7) 1.415	(11) 943	(16) 707	(20) 566	472	404	354	314	283
Irabazi	(13) 904	452	301	226	181	151	129	113	100	90
PP	552	276	184	138	110	92	79	69	61	55

ARGITARATZAILEA:
"...eta kitto!" Euskara Elkarte.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.eus

BABESLEA:
Eibarko Udala

ADMINISTRATZIOA:
Marisol Uriarte

LAN TALDEA:
Ana Aizpuru, Maider Aranberri,
Juanan Argoitia, Iñitza Fernandez,
Julian Fernandez, Silbia Hernandez,
Ainara Labado, Ainhoa Luz,
Ainara Riveras

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga

ARGAZKIAK:
Leire Iturbe, Silbia Hernandez

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia

TIRADA:
6.000 ale

BANAKETA:
Ane Lizarralde

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:
"...eta kitto!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92

ISSN:
1132-1679

"...eta kitto!"-k ez du bere gain hartzen ale honetan adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

Aldaketen garaian, aldaketa handirik ez Eibarren

ALDAKETA GARAIAREN HAUTESKUNDEAK BEZALA IRAGARRITA ZEUDEN 2015eko hauteskunde hauek botere mudantza ugari ekarri dituzte leku askotan -Bartzelona, Madril, ...-; baina, egia esan, ez handiegia Eibarren.

Jakina, 2015eko Udala eta Foru hauteskunde emaitzei buruzko irakurketa asko egin daitezke, baina Eibarren PSE-k berriro ere eutsi egin dio lehen postuari argi eta garbi, bozka eta zinegotzi kopurua handituz gainera.

Beste udal gobernu askotan bezala, laguntza eta akordioen beharra izango du PSE-k hurrengo lau urteetan gobernatzeko, baina gaur egun PSEri Eibarko alkatetza kentzeko gainerako alderdien arteko adostasuna irudikatzea oso zaila egiten da.

Eibarko Udala hauteskundeetan, oraingoa ere, bigarren lekuan Bildu koalizioa ageri zaigu. Baina aurreko udal eta europar hauteskundeetan ezagutu genuen Bilduren olatuak ez du iraupenik izan aurretan. Botuak ez ezik, zinegotzi bat ere galdu du.

Hirugarren alderdia, bigarrena Eibarren Foru Hauteskundeetan, eta goraka eginez hauteskunde hauetan, EAJ izan da. Lehen begiratuan badirudi EAJK irabazi dituela Bilduk galdutako bozkak eta zinegotzia. Azkenik, beharbada lorpen puntualak eskuratzeko balioko dion zinegotzi bat lortu du Irabazi-k.

Euskal Herrian emandako joera orokorrari jarraituz, PP-k behera egin du nabarmen eta Eibarko udalean urteetan izan duen ordezkartza galdu egin du.

Konparagarriak izan ez arren, Foru Hauteskundeetako datuei begiratu, udal bozketan hipotetiko batean pare bat zinegotzi ekarriko lizkioketen 1.200 bototik gora zenbatu ditu Podemos-en hautagaitza berriak.

Foru hauteskundeetan Eibarren izan diren botuei dagokienez, Podemos-en agerpenaz aparte, ohizkoa den bezala, EAJren emaitzetan ageri den ia 800 botoen alde, 2.800 udalera vs 3.400 Aldundira, nabarmendu daiteke. Eta alderantziz, aipagarria da Eibarren PSEk 1.200 boto gutxiago lortu dituela Foru Aldundietarako bozketan.

Beraz, orokorrean ia eremu guztietan PSOE-PSE-k emaitza kaskarrak izan arren, lehendik alkatetza izateak ematen duen abantailari etekin ona atera diote De los Toyos-ek eta Eibarko PSE-k.

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu beti berdina egiten badugu"

www.**EstilGráfico**.com

1990etik neurrira egindako komunikazio grafikoa

SORMENA
LAN TALDEA
WEB GUNEAK
ENPRESAKO BIDEOAK
KATALOGOAK
IRAGARKIAK
IRUDI KORPORATIBOA
ERROTULAZIOA
ARGAZKIAK
PACKAGING-A

BALORAZIOAK

PSE-EE (ENEKO ANDUEZA)

“Oso pozik gaude, gora egin dugulako, zinegotzi bat gehiago lortuta. Eibartarrek lau urte hauetan egin dugun beharra baloratu dute, beraz oso pozik gaude, eibartarren alde lanean jarraitzeko gogotsu, beti ere Eibar hobetzeko asmoarekin. Eibartar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta, horrez gain, zoriondu nahi ditugu, nahiz eta guri ez bozkatu gaurko eguna oso lasaia izan delako, jendeak behar den moduan botua ematera joan delako eta, beraz, gugan ipini duten konfidantzarengatik eskerrak eman, besterik ezin dugu esan”.

EH-BILDU (IGONE LAMARAIN)

“Lau urte hauetan herrian egin dugun lanaren balorazio oso ona egiten dugu. Gure ustez, oso onak diren proiektuen alde egin dugu lan, baina oraingoan herritarren gehiengoak ez ditu konpartitu. Hala ere, orain arte moduan, ildo berean jarraituko dugu lanean eta eskerrak eman nahi dizkiegu gugan konfidantza ipini duten denei. Gipuzkoan, oposizioa pasauko gara. EH Bilduren lana oso ona zan da, baina, gobernuan egoteak desgastea ekarri du. Datuak falta zaizkigu oraindik gure bozkak nora joan diren jakiteko”.

EAJ-PNV (KARLOS GONZALEZ)

“Eibarren lortu ditugun emaitzekin oso pozik gaude. Alderdiak lan izugarria egin du eta emaitzetan igarri da. Pena izan da 200 botogatik ez dugula seigarren zinegotzia lortu. Bihartik aurrera zer? EAJk oposizio tinko eta kontsekuentea egingo du lehenengo egunetik hasita. Eta Gipuzkoa mailan zer esan? Poz handia dugu, herri askotan lortu ditugu alkatetzak, Donostian bertan ere, eta hiru Foru Aldundietara itzuli gara. Oso emaitza onak beraz”.

IRABAZI (ITOITZ GARCIA-ANTON)

“Zinegotzirik ez izatetik zinegotzi bat izatera pasatzea, zalantzarik gabe, notizia ona da. PP udaletik kanpora gelditzea ere berri on bat da. Orain ikusi beharko dugu nolako paktoak egiten diren. Guk transparentziaz eta gogor lan egingo dugu, gure ezkerreko programa betetzeko. Pozik gaude, udalean ordezkari izango dugulako eta gure programa defendatzeko aukera izango dugulako, bainoanartu behar dugu gehiago nahi genuela. Abstentzioa % 37,73koa izan da, eta hau benetan penagarria da”.

PP (JAVIER NUÑEZ)

“Emaitzak hor daude, Eibarko PP-rentzat ez ezik, bestela ere, hemendik kanpora alderdiarentzat orokorrean hondamendi handia izan da gaurkoa. Gipuzkoako beste udal batzuetan ordezkariak galdu ditugu eta jaitsiera orokorra eta garrantzitsua izango dela imajinatzen dut. Gauzak horrela, egoera birplanteatzea besterik ez zaigu geratzen, ea lau urte barru hauteskunde hauetan galdu duguna berreskuratzetik daukagun, horretarako beharrezan hasi beharko dugu”.


HURRENGO LEGEALDIRAKO ZINEGOTZIAK



Miguel de los Toyos (PSE-EE)



Alberto Albistegi (PSE-EE)



Idoia Sarasketa (PSE-EE)



Patxi Lejardi (PSE-EE)



Patricia Arrizabalaga (PSE-EE)



Pedro Escribano (PSE-EE)



Ana Telleria (PSE-EE)



Arcadio Benitez (PSE-EE)



Marisa Larrauri (PSE-EE)



Eneko Andueza (PSE-EE)




Igone Lamarain (EH-Bildu)



Josu Cristobal (EH-Bildu)



Leire Abanzabalegi (EH-Bildu)



Gorka Errasti (EH-Bildu)



Anafran Astigarraga (EH-Bildu)




Eva Juez (EAJ-PNV)



Jaime L. de Gereñu (EAJ-PNV)



Mertxe Garate (EAJ-PNV)



Josu Mendikute (EAJ-PNV)



Elena Ibañez (EAJ-PNV)



Itoitz Garcia-Anton (Irabazi)



Tfnoa: 943 741800 / Faxe: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxe: 943 20 18 41
E-maila: denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxe: 943 20 18 41

Larragest



INMOBILIARIA AGENTZIA

Calbeton, 22-24
Tf. 690 610 715